FUNDACIÓN CAJANAVARRA | civican

jarduerak

2021eko MAIATZA-EKAINA

Azaleko irudiaren egilea Martina Duran Giné da; "Desfrenarse" du izenburua, eta Imagina CIVICAN XI. Diseinu Lehiaketako finalista izan zen.

CIVICAN - Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro kulturala
Pio XII.aren etorbidea 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444
www.fundacioncajanavarra.es
informacioncivican@fundacioncajanavarra.es
Facebook - @civicanFCN - @FundCajaNavarra - #ParaPersonas

DL: NA-1175-2016

CIVICAN, NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN ZENTRO KULTURALA

ZER DA CIVICAN?

Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro kulturala da, belaunaldien arteko eta diziplina anitzeko topagune bat, eta helburu du Nafarroako kultura eta hezkuntza ekosistema bultzatzea eta aktibatzea, elkartasuna eta gizarte ekintza sustatzea, bai eta pentsamendua eta filosofia ere, jasangarritasun kontzientzia indartsuarekin, herritarren parte hartze aktiboa bermatzeko.

CIVICANek hainbat gela eta areto ditu: 153 lagunentzako entzunaretoa, liburutegi bat bi irakurketa gelarekin, erakusketetarako gune bat atarian, erabilera anitzeko lau gela, sukaldea, dantza aretoa, igerileku girotua eta, gainera, kafetegia.

CIVICAN galdera berriak proposatzeko gunea da, aztertu, ikasi, kontzeptualizatu eta hausnartzeko leku bat, eta komunitateko kultura garapenaren funtsezko eragile bihurtzeko bokazioa du. Zentroaren azken xedea da kultura eta hezkuntza ekosistema sustatzea eta aktibatzea, elkartasuna, gizarte ekintza, literatura, pentsamendua, filosofia eta jasangarritasunaren kontzientzia sustatzea, eta Nafarroako herritarren parte hartze aktiboa bultzatzea, ikastaro, esperientzia eta laborategi anitz eta inklusiboak eginez, bai eta sorkuntza ekintzekin ere, jakin-minaren inguruan komunitateak sortzeko, eta, era berean, ingurunean eragin ekonomiko positiboa eta hezkuntzan, kulturan eta gizartean ere eragina izateko.

CIVICAN PROGRAMA MAIATZA-EKAINA 2021

CIVICANek pentsamendu partekatuaren alde egiten jarraituko du Udaberriko programazioan (maiatza eta ekaina) eta, hartara, Nafarroako Kutxa Fundazioak 2018-2022 Plan Estrategikoaren barruan helburutzat erabakitako programen eta zerbitzuen eraldaketan aurrera eginen du.

Proposamen kultural honen helburu nagusia publikoak eta komunitateak sortzea da, kultura blokeen inguruan, eta hori lortzeko, beste entitate batzuekin eta Nafarroan bizi eta lan egiten duten kultura eta gizarte eragile eta sortzaile nagusiekin sarean egiten den lana indartzen da.

Gainera, egungo gizarteak dituen erronkei ikuspegi ludiko, sozial, konprometitu eta garaikide batetik erantzuteko misio nagusia da, berriro ere, programazioaren ardatz, eremu hauen bitartez: ELKARTASUNA, KULTURA, HEZKUNTZA, FAMILIAK ETA LIBURUTEGIA.

Azkenik, Nafarroako Kutxa Fundazioak pentsamendu laborategien aldeko apustu irmoa egiten du, errealitatea ulertzeko hausnarketarako tresna gisa, eta bitartekaritzaren aldekoa, metodologia gisa.

10 **INFORMAZIOA**

- Nola iritsi
- Ordutegiak
- CIVICAN sare sozialetan
- Jardueretan parte hartzea
- CIVICAN, gune segurua
- Aretoak uztea eta alokatzea

12 **BITARTEKARITZA**

- Pertsonak pertsonekin
- Encontrar la danza
- En clave de #F

16 **#LabCIVICAN**

- (Re)Pensando modelos de ciudad
- Sesión de retorno

Ez huts egin!

18 ELKARTASUNA

- Nafarroako Kutxa Fundazioaren Ingurumen Gela
- Memoria de África
- PRESSPLAY!

24 KULTURA

- Perspectivas
- Aula del pensamiento
- Paisaje sonoro
- Jornadas Jacobeas

32 HEZKUNTZA

- La incubadora
- Elkarrizketa taldeak

- Irakurketa erakusleihoa
- Literatur solasaldiak
- Vecinos de letra - Letrakide
- Leer con los cinco sentidos
- Pamplona negra
- De viva voz
- Liburutegia adinekoekin
- Conoce tu biblioteca
- Liburutegia-eskola programa

36 FAMILIAK

- Mi primera vez
- ArtLAB
- (RE) Pensar la ciudad que habito
- La hora del cuento

44 LIBURUTEGIA

maiatza

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA
3 **DE VIVA VOZ** 55. or. 18:00 **Ekainaren 14ra arte** **IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA** 45. eta 46. or. Xendazaletasuna, Ibilbideak Nafarroan barrena **Maiatzaren 31ra arte** Foru krimena, Erretratu robota **Ekainaren 4ra arte** **ESCAPARATE DE LECTURAS** 19. or. Ozeanoak **Ekainaren 18ra arte**	**4** **LITERATUR SOLASALDIAK** 48. or. 18:00 Mirador de cuentos **AULA MEDIOAMBIENTAL** 19. or. 09:00 - 21:00 **Ekainaren 16ra arte** **FRANTSESEKO ELKARRIZKETA TALDE EGONKORRA** 34. or. 19:00 - 21:00 **(asteartea, ekainaren 15era arte)**	**5** **LA HORA DEL CUENTO** 42. or. 18:00 Kattalinek ez du hitz egin nahi **INGELESEKO ELKARRIZKETA TALDE EGONKORRA** 35. or. (asteazkena, ekainaren 16ra arte) **(miércoles hasta el 16 de junio)**
10 **IKASTAROA** 38. or. 18:00 - 19:00 Laboratorio de arte y creatividad **(astelehena, ekainaren 4ra arte)** **MEDIACIÓN** p.13 19:00 a 20:30 Encontrar la danza	**11** **LITERATUR SOLASALDIAK** 47. or 18:00 Café con libros. Clásicos s. XX: género negro	**12** **HITZALDIA** 27. or. 19:00 Democracia
17 **LABORATORIO DE PENSAMIENTO** 17. or. 18:30-20:30 (Re) Pensando modelos de ciudad	**18** **PROGRAMA BIBLIOTECA-ESCUELA** 58. or. 18:00 Visitas guiadas para docentes **LITERATUR SOLASALDIAK** 47. or 18:00 Liburuz liburu: Iraganaren zama.	**19** **LA HORA DEL CUENTO** 42. or. 18:00 Cuentos envueltos para regalo **HITZALDIA** 25. or. 19:00 El futuro de la educación
24 **LABORATORIO DE PENSAMIENTO** 17. or. 18:30-20:30 (Re) Pensando modelos de ciudad	**25** **LITERATUR SOLASALDIAK** 48. or. 18:00 Itaca: Irlanda **TRIBUNA** 20. or. Un artículo para escribir en tiempo africano **>www.fundacioncajanavarra.es**	**26** **ENTZUNALDI GIDATUA** 14. or. 19:30 12. zikloa/NOS. I Like to be in America
31 **LABORATORIO DE PENSAMIENTO** 17. or. 18:30-20:30 (Re) Pensando modelos de ciudad		

EGUTEGIA 2021EKO MAIATZA-EKAINA

OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
6 EUSKARAKO ELKARRIZKETA TALDE EGONKORRA 35. or. 19:00 - 21:00 **(osteguna, ekainaren 17ra arte)** TOPAKETA-TAILERRA 52. or 19:30 Leer mapas y paisajes	**7** LITERATUR SOLASALDIAK 49. or. 18:00 Ostiraletan... komikiak **(ostirala, ekainaren 18ra arte)** LABORATEGIA 39. or. 18:00 - 19:30 Fluorescencia y fosforescencia	**8**	**9** 
13 KAPSULA 33. or. Hezkuntza berrikuntza Nafarroan >**www.fundacioncajanavarra.es** IKASTAROA 37. or. 17:00 - 18:00 Mis primeros sonidos **(osteguna, ekainaren 3ra arte)**	**14** IKASTAROA 37. or. 17:00 - 18:00 La magia de las texturas II PAISAJE SONORO 28. or. 18:00 - 20:30 Bihotza + Skygaze	**15**	**16**
20 TOPAKETA 50. or. 19:30 Bizia Min JORNADAS JACOBEAS 31. or. 19:00 Hitzaldia: Relieve del 'Caballico de Santiago' de Tudela: identificación de la escena y emplazamiento original	**21** TAILERRA 39. or. 18:00 - 19:30 Naturaje	**22** 	**23** 
27	**28** IKASTAROA 37. or. 17:00 - 18:00 La magia de las texturas II LABORATEGIA 41. or. 18:00 Nidos JORNADAS JACOBEAS 31. or. 19:00 Hitzaldia: La catedral de Burgos como Patrimonio de la Humanidad	**29**	**30**

ekaina

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA
	1 **LITERATUR SOLASALDIAK** *48. or.* 18:00 Mirador de cuentos: Dos grandes autoras de clásicos infantiles **IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA** *46. or.* - Series con libro - Letra XL **Ekainaren 30ra arte**	**2** **LA HORA DEL CUENTO** *42. or.* 18:00 Cuentos al borde de un ataque de nervios **HITZALDIA** *26. or.* 19:00 El futuro de la ciencia tras la pandemia
7 **BITARTEKARITZA** *13. or.* 19:00 - 20:30 Encontrar la danza	**8**	**9** **KONTZERTUA** *15. or.* 19:30 Joyas musicales para trío de cuerda
14 **PRESTAKUNTZA JARDUERA** *58. or.* 17:00 Visitas guiadas a la biblioteca	**15** 	**16**
21 	**22** 	**23**
28 	**29** 	**30**

EGUTEGIA 2021EKO MAIATZA-EKAINA

OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
3 **TOPAKETA** 54. or. 19:30 Pamplona Negra: Sangre y letras "bajo la piel"	**4** **PAISAJE SONORO** 30. or. 18:00 - 20:30 Citrus + Arcanoid + Iker Lobo	**5**	**6**
10 **ENTZUNALDI IRUZKINDUA** 21. or. 18:30 Black Resonances / Resonancias negras **TOPAKETA** 51. or. 19:30 Humor y entretenimiento, dos palabras peligrosas en ciencia ficción y fantasía	**11**	**12**	**13**
17	**18** **TOPAKETA** 17. or. 12:00 Sesión de retorno **LABORATEGIA** 41. or. 18:00 Refugios	**19**	**20**
24 **PRESS PLAY!** 23. or. 18:30 Música y verdades posibles	**25**	**26**	**27**

INFORMAZIOA

NOLA IRITSI

CIVICAN - Pio XII.aren etorbidea 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444.

Autobusez. Geltokia gertu duten lineak: 1, 4, 8, 9, 10, 12, 15 eta 18

Bizikletaz. Aparkalekua sarrera nagusian.

Autoz. Aparkaleku publiko bat hurbil.

ORDUTEGIAK

Informazio puntua - Astelehenetik ostiralera, 09:00-21:00

Programazio bulegoa - Astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 eta 17:00-20:00

Liburutegia (12 urtetik gora) - Astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 eta 16:00-21:00

Haur Liburutegia (3-12 urte) - Astelehenetik ostiralera, 17:00-20:00
Oporraldian, astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00

Kafetegia - Astelehenetik ostiralera, 16:30-20:30.

CIVICAN SARE SOZIALETAN

Zentroaren jarduera sare sozialetan azaldu eta partekatzen da. CIVICANek profilaktiboa du Youtube, Twitter eta Facebook-en. Gainera, www.fundacioncajanavarra.es webgunean ikus daitezke programa, zerbitzu eta jarduerak, baita Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerari buruzko berri garrantzitsuenak ere. Halaber, liburutegiak informazioa eskaintzen du www.bibliotecas-publicas.es/civican/ webgunean eta civicanlib.blogspot.com blogean.

JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Entzunaretoko jarduera guztiak streaming bidez emanen dira, Nafarroako Kutxa Fundazioak YouTuben duen kanalaren bidez, kontrakoa adierazi ezean.

CIVICAN gune irisgarria da. Entzunaretoko jarduera guztiak irisgarriak dira entzumen desgaitasuna duten pertsonentzat, begizta magnetikoaren bitartez. Pertsona gorrentzat irisgarriak izan daitezen zeinu hizkuntzako interpreteekin eta/edo azpitituluekin egiten diren jarduerak dagozkion sinboloekin adierazita daude.

Eraikin eta erakusketetarako sarrera librea eta doakoa da. Besterik adierazi ezean, jardueretara* sartzeko plaza erreserbatu behar da posta elektronikoz (informacioncivican@fundacioncajanavarra.es) edo Nafarroako Kutxa Fundazioaren Linean (948 222 444), apirilaren 29ko (osteguna) 09:00etatik aurrera, edukiera bete arte. Pertsona bakoitzak 2 erreserba egin ditzake gehienez.

*Jarduerak arautzen ditu 2/1989 Foru Legeak, martxoaren 13koak, Ikuskizun Publikoei eta Josteta Jarduerei buruzkoak.

CIVICAN, GUNE SEGURUA

Nafarroako Kutxa Fundazioak, gaur egungo araudian ezarritako higiene eta segurtasun neurri guztiak hartu ditu. Zentroaren kontingentzia plan orokorra egin da, maskara nahitaez erabili behar da eta pertsonen artean 1,5 m-ko tartea bermatzen da. Gainera, gela guztietan hidrogel banagailuak jarri dira, bai eta seinaleak ere zirkulazioa ordenatzeko. CIVICANeko langileek formakuntza jaso dute erabiltzaileekin jarduteko moduari buruz, ikastaro, tailer eta jardueretan parte hartzea eta zerbitzuak erabiltzea segurua izan dadin.

ARETOAK UZTEA ETA ALOKATZEA

CIVICANek aretoak eskaintzen ditu era guztietako erabileretarako: hitzaldiak, aurkezpenak, ikastaroak, bilerak, kontzertuak, jardunaldiak eta biltzarrak. CIVICANek aretoak doan utzi edo alokatzen dizkie helbide soziala Nafarroako Foru Erkidegoan duten irabazi asmorik gabeko erakunde, instituzio edo fundazioei. Aretoak uzteko eta alokatzeko araudia, bai eta eskaera fitxa ere, Nafarroako Kutxa Fundazioaren webgunean eskuratu daitezke:

www.fundacioncajanavarra.es/es/educacion-y-cultura/civican#cesionalquiler

> Pertsonak pertsonekin
> Encontrar la danza
> En clave de #F

BITARTEKA-RITZA

Pertsonak pertsonekin

> Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroan bizi diren eta lan egiten duten pertsonak ditu bere jardueraren jomugatzat, eta bizitza kulturalean parte har dezaten bermatzen du CIVICAN proiektuaren bitartez: erakundearen kultura zentroa, egoitza Iruñean duena eta 2003an inauguratu zutena.

Pertsonekiko konpromiso hori betetzeko, ezinbestekoa da kultura bitartekaritza gizartea eraldatzeko eta herritartasuna eraikitzeko estrategiatzat hartzea. Ildo horretan, bitartekaritza izanen da eguneroko bizitzaren eta alderdi kultural, artistiko eta sozialaren artean komunitateak sortu, elkartu eta sozializatzeko prozesu berriak aktibatzeko estrategia.

Erabiltzaileengandik hurbil egotea eta haien bidelagun izatea eskaintzen diren prozesu, zerbitzu eta programetan parte hartzen dutenean. Pertsonak pertsonekin.

ENCONTRAR LA DANZA

La Faktoria Choreographic Center zentroarekin lankidetzan eginen den bitartekaritza proiektua, dantzan esperientziarik ez duen publikoa dantzara hurbiltzeko.

Programaren koordinatzaileak: Diego Pazó, Lucía Burguete eta Martín Los Arcos, LUR egoitzak.

Askotan, ulertzen ez duguna ez dugu atsegin. Zerbaitekin betebetean gozatzeko, beharrezkoa da esperimentaziotik konektatzea, eta, horretarako, arreta non jarri jakin beharra dago. Nola begiratzen zaio dantzari? Non bilatu behar da (edo bilatzeari utzi) edertasuna, emozioa edo harridura?

1. topaketa

Maiatzak 10, astelehena, 19:00-20:30.
3. gela

2. topaketa

Ekainak 7, astelehena, 19:00-20:30.
3. gela

Topaketa hauetan, dantza lan laburrak aztertuko dira, eta publikoak bere zalantzak, desadostasunak edo lilura adierazi ahal izanen ditu. Performance laburren bideoak proiektatuko dira, eta ikusleekin horiei buruz hitz eginen da. Hori guztia osatzeko, “zuzeneko entsegu” batzuk eginen dira.

BITARTEKARITZA

EN CLAVE DE #F

Baluarte Fundazioaren lankidetzarekin egindako bitartekaritza proiektua, musikan esperientziarik ez duen publikoa musikara hurbiltzeko.

Kontzertu didaktikoak, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko instrumentisten talde txikiez gozatzeko, bai eta entzunaldi iruzkinduak ere.

ENTZUNALDI GIDATUA

Ciclo 12/OSN. I Like to be in America

Maiatzak 26, asteazkena, 19:30.
Auditoriuma

> María Setuain musika bitartekaritzan espezializatutako irakaslearen eskutik.

Kontzertu sinfoniko amerikar peto-peto baten gakoak arakatuko ditugu XX. mendeko New Yorkeko bi konpositore judu garrantzitsuenei eskainitako kontzertuan: Gershwin eta Bernstein.

BITARTEKARITZA

KONTZERTUA

Joyas musicales para trío de cuerda

Ekainak 9, asteazkena, 19:30. Auditoriuma

> W.A. Mozart eta L. Van Beethoven-en lanak

Interpreteak: Anna Siwek, biolina; Javier Gómez, biola; Tomasz Przylecki, biolontxeloa

> (Re)Pensando modelos de ciudad

> Sesión de retorno

#LabCIVICAN

Nafarroako Kutxa Fundazioak #LabCIVICAN sustatzen du, Iruñeko kultura zentroko zerbitzu berri bat, pentsamendua eta kultura partekatua garatzeko gatazken ebazpenean.

Elkartzeko eta lankidetzan aritzeko espazio ireki bat da, eta bertan hainbat pertsonak elkarrekin lan egiten dute, gaur egungo arazo sozial eta kulturalei erantzun espezifikoak emanen dizkieten proposamenak garatzeko.

#LabCIVICAN komunitateko kide izan nahi duten pertsona guztiek mezu elektroniko bat idatz dezakete informacioncivican@fundacioncajanavarra.es helbidera, bertan adierazita beren datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, adina eta izena emateko arrazoiak. Era berean, Nafarroako Kutxa Fundazioa Lineara deituta (948 222 444) edo CIVICANera hurbilduta ere eman daiteke izena.

Programaren koordinatzailea: Javier Espinosa, gizarte-aholkularia.

PENTSAMENDU LABORATEGIA

(Re)Pensando modelos de ciudad

Maiatzak 17, 24 eta 31, astelehena, 18:30-20:30
a 20:30. 4. gela

> Adinez nagusientzako jarduera. Parte hartzeko gogoa eta sormena dituzten pertsona dinamikoak, ikusmen espazial handikoak, era askotako profilak eta esperientziak dituztenak eta aldaketa sozialari begira interesa dutenak.

Hiriak, bizi garen lurralde komun hori, bertan bizi diren pertsona guztien eta, bereziki, kalteberenen bizikidetza eta topaketa ahalbidetu behar duen gunea da. Laborategi honetan, gune publikoak eraldatu eta toki seguruak, inklusiboak eta irisgarriak sor ditzaketen proposamen berriak (bir)pentsatuko ditugu.

TOPAKETA

Sesión de retorno

Ekainak 18, ostirala, 12:00.
Auditoriuma

> Javier Espinosa, gizarte-aholkularia; eta Mercedes Corretge, bideratzaile grafikoa.

#LabCIVICANen lortutako emaitzak komunikatzeko eta partekatzeko topaketa, gizartearen zerbitzura dagoen ikaskuntzako garapen esperimental, malgu eta ireki baten barruan.

Saio honetan, mapa bisual bat –graphic recording– eginen dugu, #LabCIVICAN komunitateko partaideekin eta interesa duten pertsona guztiekin lankidetzako prozesu baten bitartez. Saio honetan, laborategietan lortutako emaitza eta proposamenak ez ezik, esperimentatutako ikaskuntzak eta lan prozesuak ere jasoko dira, eta parte-hartzaileek ekarpenak ere eginen dituzte zuzenean.

> Nafarroako Kutxa Fundazioaren Ingurumen Gela

> Memoria de África

> PRESSPLAY!

ELKARTASUNA

NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN INGURUMEN GELA

Nafarroako Kutxa Fundazioak hezkuntza zerbitzu berri bat eskaintzen die bere zentro kulturalaren erabiltzaile guztiei, Ingurumen Gela, balio ekologikoak transmititzeko eta itsas ingurunea zaindu beharraren gainean sentsibilizatzeko.

Bisitaldietan multimedia elementuak izanen dira oinarri, hala nola tabletak eta errealitate birtualeko betaurrekoak, betiere honako helburu hauek lortze aldera:

- Itsas ingurunea eta bertako biodibertsitatea ezagutzea.
- Naturarekiko errespetua sustatzea eta herritar arduratsu izateko gaitasunak eskuratzea.
- Ingurumenarekiko konpromiso eta parte hartze aktiboko jarrerak sustatzea.

Informazio gehiago lortzeko, jarri gurekin harremanetan helbide elektroniko honetara mezu bat idatzita: informacioncivican@fundacioncajanavarra.es; edo Nafarroako Kutxa Fundazioa Linearen bitartez (948 222 444).

NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN INGURUMEN GELA

Maiatzaren 4tik ekainaren 16ra.
Ataria

> Ikusteko aukera: astelehenetik ostiralera, 09:00-21:00

ESCAPARATE DE LECTURAS

Océanos

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.
Haurren liburutegia

BISITA GIDATUEN PROGRAMA: NORUS ESPEDIZIOA

> Ikastetxeak. Ostegun eta ostiraletan, 10:00ean eta 12:00etan

> Adinekoentzako zentroak. Astelehenetan, 10:00ean eta 12:00etan

> Taldeak. Astearteetan, 10:00ean eta 12:00etan

> Familiak. Maiatzak 12 eta 26 eta ekainak 9, asteazkena, 18:30ean

MEMORIA DE ÁFRICA

Maiatzaren 25a Afrikako Independentzien Eguna izaki, Afrikari buruz dauden estereotipoak urratzeko asmoz, begiratu garaikidea eginen diogu eta Afrikako sorkuntza lan artistikoen modernotasunaz jabetuko gara.

PRESSPLAY! eta AFRIKA BEHAR BEHARREZKOAren proposamena.

TRIBUNA

Un artículo para escribir en tiempo africano

Maiatzaren 25etik aurrera egonen da www.fundacioncajanavarra.es webgunean

> Maiatzaren 25a Afrikako metropolien independentziaren egun izendatzeko onarpen sinbolikoa, orain, askatasunaren, komunitatearen, aberastasunak modu orekatuan banatzearen, emakumeei protagonismoa ematearen... aldeko aldarri bihurtu da. Saharatik hegoaldeko eta Afrondorengoen Afrika bizi-bizi dago, adierazi egiten da, maitatu egiten du, sortzailea da, min hartzen du, elkartu egiten da, aldarrikatu egiten du... Afrikan bertan eta diasporetan dauden biztanleen bitartez.

Nazioarteko gaurkotasunean espezializatutako Javier Aisa kazetariaren eskutik. Espacio REDO webgunearen sortzailekidea eta Afrika Behar Beharrezkoa partzuergoaren koordinatzailea.

ENTZUNALDI IRUZKINDUA

Black Resonances / Resonancias negras

Ekainak 10, osteguna, 18:30. Auditoriuma

> Solasaldia MaguetteDieng (aka MBODJ) musika hautatzaile eta zabaltzailearekin, Afrikako eta Afrikaren diasporetako afro soinuetara hurbiltzeko, eta afrofuturismo musikalaren kontzeptuaren berri izateko. Eta solasaldiaren ondoren, demostrazio modura, soinuzko bidaia bat egingo du, zuzenean, gure etorkizun hurbila mugarik gabe irudikatzeko kosmobisio des-mendebaldetartu batetik.

MBODJk elektronikaren hainbat genero nahasten ditu eta, plateren atzean ibili den hiru urteetan, Bartzelonako club garrantzitsuenetatik igaro da, hala nola Razzmatazz edo Apolo, bai eta SheMakesNoise, NyegeNyege Festival edo Sónar+D jaialdietatik ere.

ELKARTASUNA

PRESSPLAY!

PRESSPLAY! ziklo kulturalean soinuzko munduaren aukerak arakatzen dira, Mediterraneoa bere nortasun kulturalekin lotuta.

Espacio Redok sustatutako proiektu honek Nafarroako Kutxa Fundazioak eta la Caixa Fundazioak bultzatzen duten Innovacultural programaren laguntza jaso du.

EXPERIENCIA MUSICAL

Músicas y verdades posibles

Ekainak 24, osteguna, 18:30. Auditoriuma

> Hitzaldiarekin batera, abestiak eta, gero, eztabaida irekia izanen dira. Musikak memoria kolektiboaren sorreran eta erreparazioan duen garrantziari buruz hausnartzeko gunea. Musika, gatazken konpontzaile; musika, egiaren eraikitzaile.

Hizlaria: Sarah Ardite musika hautatzaile eta kronista. Musikaren filosofia eta soziologiako ikertzailea.

> Perspectivas
> Aula del pensamiento
> Paisaje sonoro
> Jornadas Jacobeas

KULTURA

PERSPECTIVAS

Pentsamendurako eta eztabaidarako espazio bat, non arlo zientifiko, sozial eta kulturaleko hainbat protagonistak publikoarekin partekatuko dituzten etorkizuneko gizarteak izango dituen erronka nagusiak.

HITZALDIA

El futuro de la educación

Maiatzak 19, asteazkena, 19:00. Auditoriuma

> Hizlariak: Luis Lizasoain Hernández eta Gregorio Luri Medrano.

Jarduera hau Nafarroako Kutxa Fundazioaren Aprender-Ikasi Katedraren barruan sartzen da.

Topaketa honetan, hezkuntzari buruzko elkarrizketa bat proposatzen da, eta Luis Lizasoainek eta Gregorio Lurik bi errealitate aurkeztuko dituzte, desberdinak baina elkarren artean lotuta daudenak. Hezkuntzan nola eta zertarako ebaluatzen den aztertuko dute, eta hezkuntza sistemak eta hezkuntza zentroak ebaluatu beharrari buruz mintzatuko dira.

Luis Lizasoain Hezkuntza-ikerketarako metodoen irakasle izan da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), bai eta Mexikoko INEE Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionaleko aholkulari ere. Gaur egun, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko Batzorde Zientifikoko kide eta Mexikoko Unibertsitate Iberoamerikarreko Irakaskuntza Ebaluatzeko Aholku Kontseiluko kide da.

Azagran jaiotako Gregorio Luri irakaslea da, Pedagogian lizentziaduna eta Filosofian doktorea. 2020. urtean Nafarroako Gobernuaren Karlos III.a Noblea domina jaso zuen Pedagogiaren eta Filosofiaren arloetan egin duen ibilbideagatik eta eskola publikoaren aldeko lan sutsuagatik.

PERSPECTIVAS

HITZALDIA

El futuro de la ciencia tras la pandemia

Ekainak 2, asteazkena, 19:00. Auditoriuma

> Hizlaria: Pere Estupinyà, biokimikoa eta dibulgatzaile zientifikoa, RTVEko El cazador de cerebros saioko zuzendari eta aurkezlea.

Zer nolako eragina izan du pandemiaren urte honek gure osasun mentalean, ekonomian, hezkuntzak edo lan egiteko eta sozializatzeko moduetan? Zein aldaketa dira iragankorrak eta zein iraunkorrak? Iritziak iritzi, zientzialari sozialak hori aztertzen ari dira. Baina... eta zientzia bera?

2020. urtearen erdialdera, ikertzaileek zioten ezinezkoa zela txertoa urte bukaerarako lortzea, eta bat baino gehiago iritsi ziren; beraz, frogatuta geratu zen hainbat prozesu desberdin eginez gero, eraginkorragoak direla. Zer nolako eragina izango du pandemiak ikerketaren finantzaketan, ikerketaren diziplina anitzeko orientazioan eta egitekoetan, emaitzak argitaratzeko prozesuan, eta zientziaren eta zientzialarien pertzepzio sozialean eta komunikazioan?

Pere Estupinyà (Tortosa, 1974) biokimikaria zientziaren komunikazio lan handia egiteagatik da ezaguna, dibulgazioko liburuen, hitzaldien eta telebistako saioen bitartez.

Massachusetts-eko Institutu Teknologikoan (MIT) lan egin du, Estatu Batuetako Osasun Institutu Nazionaletan (NIH), bai eta Garapeneko Banku Interamerikarrean (BID) ere.

2010. urtean idatzi zuen lehen liburua –*El ladrón de cerebros. Compartiendo el conocimiento científico de las mentes más brillantes*– eta, harrezkero, dibulgazioko beste hainbat ere kaleratu ditu. Telebistan 2014an hasi zen TV3 telebistarako *Inversió de Futur* dokumentala aurkezten; aurrerago, bere lehen liburua ez ezik, 2013an idatzitako S=EX2. *La ciencia del sexo* ere telebistara eraman zituen. 2015. urtean El ladrón de cerebros en Ecuador seriearen 13 kapitulu produzitu eta aurkeztu zituen eta, hurrengo urtean, Minifilms produktorarekin batera, *El cazador de cerebros* saioa zuzendu eta aurkeztu zuen. Cadena SER irratiko *A vivir que son dos días* saioan ere parte hartzen du.

AULA DEL PENSAMIENTO

Espazio honetan, pentsalariek zenbait kontzeptu klasiko definitzen dituzte pentsamenduaren historiaren bitartez, gaur egungo mundua azaltzeko.

HITZALDIA

Democracia

Maiatzak 12,
asteazkena, 19:00.
Auditoriuma

> Hizlariak: Daniel Gamper, Filosofia politikoko irakaslea Bartzelonako Universitat Autònoma unibertsitatean.

Aurkezlea eta moderatzailea: Mario Šilar, ANAFIE Nafarroako Filosofia Elkarteko kidea.

Zer da Demokrazia? Ziurrenik, kontzeptu horren nondik norakoa kolektiboki ulertzeko ahalegina bera demokrazia egiteko modu bat izanen da. Hitzak berebiziko garrantzia du: demokraziarekin hiriko ongiari buruz elkarrekin arrazoitu daiteke, eztabaidarako eta akordioak lortzeko balio du, eta demokraziaren adierazpen askeak aniztasun soziala artikulatzea ahalbidetzen du. Elkarrizketa publikorik gabe, demokraziak bere burua suntsitzeko arriskua du.

PAISAJE SONORO

Nafarroako Kutxa Fundazioak Musex Industries-ekin batera antolatutako programa da, soinuarekin eta soinu ikerketarekin lotutako beste jardunbide batzuk arakatzeko.

JARDUNALDIA

Bihotza + Skygaze

Maiatzak 14, ostirala, 18:00-20:30. Auditoriuma

> 18:00. Dj Set Miss Bihotza

Isabel de Arza dago Miss Bihotza izenaren atzean eta, Gasteizko Jimmy Jazz aretoko egoiliar izaki, hilean behin gau baten sustatzaile da duela 5 urtetik: HEARTz elektronika soziala. Txikitatik entzun izan ditu jazz, rock, kraut rock, progressiv eta punk estiloak. Eta 2005. urtean saioak egiten hasi zen Madrilgo Malasaña auzoko gauetan, pistan sortzen den energia hori komunikatzeko eta jasotzeko premiak bultzatuta.

Miss Bihotzak bere soinu propioarekin egiten du lan, saio biribil bezain dotoreak eginez, iluntasun argitsu batekin. Emozio egoerak sortzea lortzen du: elektronika soziala.

> 19:00. Live Skygaze

Jaime Tellado arkitektoaren proiektu musikala da Skygaze; arkitektoa da lanbidez, eta musikazale amorratua txiki-txikitatik. 2013. urtean hasi zuen ibilbidea; hainbat jaialditan jardun du, hala nola Sonar, LEV edo MIRA, bai eta *streaming* plataformetan ere: Boiler Room edo Captcha. Diskoetxe ugaritan egin ditu argitalpenak, eta 2017an 'Bilbo Hiria' saria lortu zuen "elektronika eta joera berriak" kategorian. Berriki, laugarren albuma argitaratu du: *Bloom*, eta Andrew Jervis-ek 'Asteko album' izendatu du Bandcamp plataforman.

Musika proposamen heterogeneoa egiten du, *beat-construction* abstraktuan oinarrituta: jazz herentziako *hip hopetik* gertu dauden tempo geldoetatik hasi eta dantza pistatik hurbilago dauden tempoetara, hala nola *house* edo *jukea*.

> 20:00. Elektronika sozialaren topaketa irekia

Miss Bihotzarekin batera, klub kulturari buruz hitz eginen da topaketa honetan, kontzientzian, errespetuan eta integrazioan oinarrituta lantzen ari den klub kultura horri buruz, elektronika sozialaren inguruan komunitatea sortuz.

PAISAJE SONORO

PAISAJE SONORO

JARDUNALDIA

Citrus + Arcanoid + Iker Lobo

Ekainak 4, ostirala, 18:00-20:30. CIVICAN plaza

> 18:00. Live Citrus

Alberto Márquez Urra (Citrus) iruindarrak Zaragozan jaso zuen arte plastikoen inguruko prestakuntza, eta musika produkzioarekiko zaletasuna graffitiaren eta arte urbanoaren munduarekin lotutako beste hainbat jardunekin uztartzen du Espainiako hainbat tokitan. Autodidakta eta sintetizadoreen zale amorratua, besteak beste, Sonny Cruz edo Andreu Muntaner "Lobo" artistentzako birnahasketak egiten hasi zen. 2020an Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdian (DNA20) parte hartu zuen, eta Danzai konpainiaren RE-DES ikuskizunaren soinu banda konposatu zuen.

> 19:00. Live Arcanoid

Luis Cantalapiedra Vázquez 80ko hamarkadaren amaieran hasi zen musika jartzen, Dj Muerto ezizenarekin. 90eko hamarkadan, Voltereta aretoko Dj egoiliar eta sustatzaile izan zen. 2002. urtean Altered State sortu zuen Óscar Mulero, Pitch eta Focus-ekin batera. Saio hori Madrilgo ostegun gauetarako zen, eta *Drum'n' Bass* soinua bere forma guztietan arakatzea eta ezagutaraztea beste helbururik ez zuen.

2007an, Minuendo Electrónico diskoetxearen lehen erreferentzia estreinatu zuen, Arcanoid bere musika proiektu berriaren pean, eta, ordutik, erreferentzia ugari argitaratu ditu bai besteen diskoetxeetan, bai bereetan.

> 20:00. Topaketa: Arcanoid eta Iker Lobo

Arcanoid eta Iker Bárbara kazetariaren (*Mondo Sonoro, Basques On Decks*) arteko topaketa honetan, zuzenekoaren nondik norako tekniko eta artistikoak aztertuko dituzte. Eta soinuarekin lotutako teknologiaren ikerketan eta garapenean buru-belarri dabiltzan artistek soilik egin dezakete hori.

JORNADAS JACOBEAS

Nafarroako Done Jakue Bidearen Lagunak elkarteak, Nafarroako Kutxa Fundazioarekin elkarlanean, Done Jakue Bidearen XXXII. Jardunaldiak antolatu ditu, Done Jakue Bidea eta, hedaduraz, Foru Erkidegoaren historia eta artea ezagutarazteko.

HITZALDIA

Relieve del 'Caballico de Santiago' de Tudela: identificación de la escena y emplazamiento original

Maiatzak 20, osteguna, 19:00.
Auditoriuma

> Hizlaria: Manuel Sagastibelza Beraza, industria ingeniari teknikoa eta ikertzailea.

Tuterako erliebe ezagun horretan kristau gerlari bat agertzen da, ezpata handia eskutan duela musulmanen modura jantzitako bi pertsonaiaren aurrean; erliebeari 'Done Jakueren zaldia' esaten zaion arren, protagonista Done Jakue apostoluarekin identifikatzea ez da oso ziurtzat jotzen. Hala ere, erliebearen azterketa zehatzagoa eginez gero, eszena Tuterako historiako pasarte oso zehatz bat dela ikus daiteke, Nafarroako monarkiaren berrezarpenean funtsezko izandako pertsonaia bat izanik protagonista.

HITZALDIA

La catedral de Burgos como Patrimonio de la Humanidad

Maiatzak 28, ostirala, 19:00.
Auditoriuma

> Hizlaria: José Matesanz del Barrio, Arteaaren Historiako irakaslea eta Burgosko Institución Fernán González erakundeko akademikoa.

Burgosko Tenplu Nagusia monumentu nazional izendatu zuten 1885eko apirilaren 8an. Pedro eta Federico Madrazo presidente izanik, San Fernandoko Historiaren eta Arte Ederren Errege Akademiek txostena egin ostean, Dekretuan eliza honen balio historiko eta artistikoak aitortu ziren; XI. mendeko eliza da, Gaztelako monarkiaren babespean sortutakoa, Okako antzinako egoitzaren oinordeko, eta Maurizio apezpikuaren eta Fernando III.a erregearen borondatez arte gotikoaren paradigmapean berreraiki zena.

> La incubadora

> Elkarrizketa taldeak

HEZKUNTZA

LA INCUBADORA

Nafarroako Kutxa Fundazioak ideiak garatzeko bidea emanen duen hezkuntza eremu bat proiektatzen du bere kultura zentroan. Gunearen helburua da gazteen, gurasoen eta hezitzaileen premiak asetzea.

Horren bitartez lortu nahi da espiritu berritzailea, sormena eta lan egiteko modu berriak sustatzea, hezkuntza prozesuan inplikaturiko eragileen artean jakintza trukatzeko sare bat sortzeko.

KAPSULA

La innovación educativa en Navarra

Maiatzaren 13tik aurrera, www.fundacioncajanavarra.es webgunean

> Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoko ikastetxeetan proiektu berritzaileak egitea bultzatzen du.

Inkubagailuaren bitartez, proiektu horietako zenbait ikusgai jarri nahi dira, proposamen pedagogiko berriak ezartzeko eta horien baliagarritasuna egiaztatzeko esparru diren aldetik; proiektu horiek etengabe aldatzen ari den gizarte baten eskakizunetara egokitzen dira eta, gizarte horretan, aurrerapen didaktiko, metodologiko eta teknikoak ere etengabeak dira.

HEZKUNTZA

ELKARRIZKETA TALDEAK

CIVICANen proposamenak helburutzat du elkartzeko eta ikasteko foroak bultzatzea, ideiak eta ezagutzak trukatzeko. Hainbat hizkuntzatan hitz egin nahi duten pertsonak elkartzeko toki bat.

Frantseseko elkarrizketa talde egonkorra

Asteartetan, urriaren 6tik ekainaren 15era, 19:00-21:00. 2. gela

> Gazte eta helduentzat.

HEZKUNTZA

Ingeleseko elkarrizketa talde egonkorra

Asteazkenetan, urriaren 7tik ekainaren 16ra, 19:00-21:00.
2. gela

> Gazte eta helduentzat.

Euskarako elkarrizketa talde egonkorra

Ostegunetan, urriaren 8tik ekainaren 17ra, 19:00-21:00.
2. gela

> Gazte eta helduentzat.

> Mi primera vez
> ArtLAB
> (RE)Pensar la ciudad que habito
> La hora del cuento

FAMILIAK

MI PRIMERA VEZ

Nafarroako Kutxa Fundazioak haurrentzako proposamen eszenikoak eta murgiltze esperientziak eskaintzen ditu, 6 hilabetetik gorako haurrak dituzten familientzako sormen espazio batean.

IKASTAROA

Mis primeros sonidos

Ostegunetan, maiatzaren 13tik ekainaren 3ra, 17:00-18:00. 3. gela

> 15-24 hilabeteko haurtxoak dituzten familientzat

> Irakaslea: Sandra Azcona, musikoterapeuta

Tailer honen helburua da soinuaren, musikaren eta mugimenduaren bitartez haurraren garapena estimulatzea eta hazkunde prozesuan laguntzea.

10 plaza
Ordu 1eko 4 saio
Izen ematea: 48 € familia unitate bakoitzeko

IKASTAROA

La magia de las texturas II

Maiatzak 14 eta 28, ostirala, 17:00-18:00. 3. gela

> 15-36 hilabeteko haurrak dituzten familientzat

> Irakaslea: Elena Eraso, hezitzailea

Adierazpen plastikoa hezkuntza prozesuaren parte da haurtzaroan. Ukimenezko estimuluen eta estimulu bisualen bidez, gurasoen eta haurren arteko harremana sustatuko da, baita norbere buruarekiko harremana, bere gorputzarekikoa eta bere sentsazioekikoa ere.

Hainbat testurarekin lan eginen da, hala nola margotutako pasta eta zereal soroak.

8 plaza
1 orduko 2 saio (2 ordu)
Izen ematea: 35 € familia unitate bakoitzeko

ArtLAB

Nafarroako Kutxa Fundazioak sorkuntza artistikoa sustatu nahi du, eta haurrek ikuspegia zabaltzeko aukera emanen dieten esperientzia berriak biziko dituzte. Partaidetzan oinarritutako ekintza ludikoak, ezagutza berriak barneratu eta jakin-mina sustatzeko.

IKASTAROA

Laboratorio de arte y creatividad

Astelehenetan, maiatzaren 10etik ekainaren 14ra, 18:00-19:00. 1. gela

> 4-7 urteko haurrentzat

> Irakaslea: Elena Eraso, hezitzailea

Laborategi hau bi hizkuntzatan oinarritzen da: arakatzeko artea eta helburu bat duen arte kolaboratiboa. Teknika eta material artistiko desberdinak esploratzeko eta zentzumenak pizteko espazio bat da, eta bertan, irudimena eta sormena garatzen dira, eta garapen emozionala lantzen da.

Teknika artistiko desberdinen bidez oinarrizko kodeak erabiltzen ikasiko dute haurrek, eta artearen hizkuntza desberdinekin esperimentatuko dute (kolorea, bolumena, forma...). Era berean, material birziklatuen erabilera landuko dute, ikaskuntza sortze hizkuntzan txertatzeko.

12 plaza
Ordu 1eko 6 saio (6 ordu)
Izen ematea: 55 €

ARTLAB

LABORATEGIA

Fluorescencia y fosforescencia

Maiatzak 7, ostirala, 18:00-19:30. 3. gela

> 6-11 urteko haurrentzat.

> Irakaslea: Nuria Ganuza, hezitzailea

> 15 plaza

Argiaren pedagogia magia da haurrentzat eta, gainera, hamaika proposamen ludiko ere eskaintzen ditu. Argiaren aurkikuntzarekin, gure bizitzaren beste alderdi askoren berri izan dezakegu. Laborategi honetan zientzia ezagutzeko eta zientziarekin jolasteko aukera izanen da, argiaren eta iluntasunaren bitartez.

TAILERRA

Naturaje

Maiatzak 21, ostirala, 18:00-19:30. 3. gela

> 6-11 urteko haurrentzat.

> Irakaslea: Elena Bidart, hezitzailea

> 15 plaza

Tailer honetan, ingurune bat sortuko da eskala txikian, paisaia bat, parte hartzaile bakoitzaren neurrira. Horretarako, tolesekin eta lautadekin jolastuko dugu, eta lautadak osatzen dituzten elementu txikiekin: landareak, zuhaitzak, zuhaixkak.

FAMILIAK

(RE) PENSAR LA CIUDAD QUE HABITO

Nafarroako Kutxa Fundazioak hirian esku hartzeko laborategiak sustatzen ditu, eta, horietan, parte hartzaileek beren hiria (bir)pentsatzen dute, jasangarriagoa izan dadin.

5-11 urteko haurrak dituzten bizikidetza taldeentzat.

Maushaus, haurrentzako arte eta arkitektura hezkuntza arkitektura tailerrak koordinatutako jarduera

LABORATEGIA

Nidos

Maiatzak 28, ostirala, 18:00.
CIVICAN plaza

> Orthotomus sutorius txoriak zuhaitzetan bizirik dauden hostoak josita habiak nola egiten dituen ikusita, geure buruari galdetzen diogu, ezinbestean, hegaztiak gizakioi erreparatuta ikasi ote zuen hori egiten, edo alderantziz.

Zenbait izakik trebetasun, zehaztasun eta kontu handiz egiten dituzte beren babeslekuak material galkorrak erabilita, eta horrek agerian uzten du animalien munduan kumeak zenbateko maitasunez zaintzen diren.

LABORATEGIA

Refugios

Ekainak 18, ostirala, 18:00.
CIVICAN plaza

> Lehen aldiz asmatu zirenetik, kapsula geodesikoek babespeko mundu bat eskaini dute beren baitan. Kanpoko ezbeharrez isolatuko gaituzten burbuila perfektuak izaki, domoak basamortura, espaziora eta baita itsas hondora ere eraman izan dituzte, bizitza muturreko baldintzetan eutsi ahal izateko.

Korapilo eta barren geometria eraginkorra duten elementuok triangelu deformaezinetan oinarritutako arkitektura biribilduak dira, eta denborak aurrera egin duen arren, etorkizuna gogorarazten digute oraindik ere.

LA HORA DEL CUENTO

4 urtetik gorako haurrentzako jarduera*. Astean behingo hitzordua, liburuetako istorio eta pertsonaia erakargarrienekin. CIVICANeko haur liburutegiko liburuen artean oso hurbiletik entzuteko istorioak.

Kattalinek ez du hitsegiten nahi

Maiatzak 5, asteazkena, 18:00

> Ipuin kontalaria: Lur Usabiaga

Jarduera euskaraz izanen da

Cuentos envueltos para regalo

Maiatzak 19, asteazkena, 18:00

> Ipuin kontalaria: Sergio de Andrés

Cuentos al borde de un ataque de nervios

Ekainak 2, asteazkena, 18:00

> Ipuin kontalaria: Sergio de Andrés

FAMILIAK

*Jarduera hau 4 urtetik gorako haurrentzat da. Haiekin datozen helduak eta 4 urtetik beherako haurrak liburutegiaren kanpoan geratuko dira saioa amaitu arte. Jarduerak iraun bitartean (18:00-19:00), liburutegiko langileak arduratuko dira haurrez. Liburutegiko gainerako ohiko zerbitzuak 19:00etan berrabiaraziko dira.

> Irakurketa erakusleihoa
> Literatur solasaldiak
> Vecinos de letra - Letrakide
> Leer con los cinco sentidos
> Pamplona negra
> De viva voz
> Liburutegia adinekoekin
> Conoce tu biblioteca
> Liburutegia-eskola programa

LIBURUTEGIA

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Liburutegiko erakusmahaietan era askotako iradokizunak daude, gaurkotasunaren bilakaeraren, bizitzaren erritmoaren edo urtaroen joanaren arabera irakurtzeko.

Eguraldi onak irteteko gonbita egiten du, eta liburuek ideiak eman eta gure urratsak gidatu ditzakete. Eta itzuleran, gure besaulki kuttunean, irakurketa menu zabal batez goza dezakegu: telesail zirraragarri hura inspiratu zuen eleberria, argitu beharreko krimen bat, abentura zoro bat, erromantze sutsu bat, eta beste milaka argumentu, letra handian, ikusmena ez behartzeko. Eta haurren sailean, liburu piloa, orrien joan-etorri bat, gure ametsak kulunkatzeko.

Erakusleiho bakoitzeko liburuak dagokien irakurketa gidan bilduta daude, eta gidak liburutegiaren webgunean kontsultatu daitezke: www.bibliotecas-publicas.es/CIVICAN

Mendi-ibiliak, Ibilbideak Nafarroan barrena

Maiatzaren 3tik 31ra
Gazte eta helduentzat

> Nafarroako bidezidor bakar bat ere ez galtzeko gidaliburu sorta bat: baso, tontor, leize, ibai eta elezaharren arteko bideak. Foru Erkidegoa zeharkatzeko eta haren zabaltasunaz eta askotarikotasunaz gozatzeko eskuliburu multzo bat.

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Foru krimena, Erretratu robota

Maiatzaren 3tik ekainaren 4ra
Gazte eta helduentzat

> Krimenik odoltsuenak egin dituzte, arrastoak ezkutatu dituzte, polizia manipulatu dute... gure interesa bahitu eta loa lapurtu digute. Hurbileko jendea da, zure bizilagunak. Liburuak idazten dituzte. Ez diezazutela ihes egin.

Liburudun serieak

Ekainaren 1etik 30era
Gazte eta helduentzat

> Azken urteotan, telesailen fenomenoak iraultza eragin du ikus-entzunezkoen munduan, gure kultura jardunbideak markatu ditu eta zuzendari handienen arreta eta sormena bereganatu ditu. Ekoizpen horietako asko liburuetan oinarrituta daude. Hemen dituzu izenburu aipagarrienetako batzuk.

Ozeanoak

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra
Gazte eta helduentzat

> Nafarroako Kutxa Fundazioak CIVICANen duen ingurumen gelarekin bat eginez, ozeanoei eskainitako hainbat lan aurkeztuko dira: itsas paisaietan gertatutako abentura liburuak, itsaspeko biziaren aberastasuna eta hura zaintzen nola lagundu erakusten duten izenburuekin batera.

XL letra

Ekainaren 1etik 30era
Helduentzat

> Irakurri nahi duzu, baina ikusmena nekatuta duzu? Testu txiki eta estuek uxatzen zaituzte? Konponbidea aurkitu dugu! Mimo bereziz argitaratutako lan zoragarriak aurkituko dituzu hemen: letra estra-handia, ertz zabalak eta “aire” asko lerro artean. Irakurketarekin gozatzen jarraitzeko liburuak.

LITERATUR SOLASALDIAK

Liburutegiak sei irakurketa klub koordinatzen ditu: helduentzako lau, haurrentzako bat eta familientzako beste bat (haurtzaroko lehen urteetako irakurketak).

Irakurketa klubetako kide izan eta literatur solasaldietan parte hartzeko, izena eman behar da aldez aurretik.



Café con libros. Clásicos s. XX: género negro

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Genero guztietako literatura. Helduak. Koordinatzailea: Villar Arellano

Joan den mendeko idazle nagusiei eskainitako gure ibilbidean, hilabete honetako irakurketaren protagonista Estatuko genero beltzaren klasiko handienetako bat izanen da: Vázquez Montalbán, eta bere pertsonaia ahaztezina, Pepe Carvalho.

Maiatzak 11: *El premio*, Manuel Vázquez Montalbán

Liburuz liburu: Iraganaren zama

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Euskarazko literatur solasaldia. Helduak. Koordinatzailea: Ángel Erro

Metafora bat izan zitekeen. Sergei Dovlatovek maleta bakar bat eraman zuen erbestera, SESBetik alde egin zuenean. Hortik urte batzuetara umorez errepasatu zuen, banan-banan, maleta/iragan horren edukia liburutto honetan.

Maiatzak 18: *Maleta*, Sergei Dovlatov

LITERATUR SOLASALDIAK







Ítaca: Irlanda

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Literatura historikoari eta bidaietakoari buruzko solasaldia. Helduak. Koordinatzailea: Rebeca Erro

Udaberri honetan, Esmeralda uhartea ere esaten zaioneko bazterrak zeharkatzen jarraituko dugu. Oraingo honetan, Colm Tóibínen lumak eta bere itxurazko soiltasunak gidatuko gaituzte, Irlandako sorkuntza aberatsaren adibide bikaina baita.

Maiatzak 25: *Brooklyn*, Colm Tóibín

Mirador de cuentos: Dos grandes autoras de clásicos infantiles

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Haur literaturari buruzko solasaldia. Helduak. Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Sara Machuca

Joan den mendeko haurrentzako klasikoetan barrena abiatutako gure ibilbidearekin jarraituko dugu, bi egile handiren liburu hauekin: lehena, Espainiako literaturaren ahots garrantzitsuenetako baten kontakizun hunkigarri bat, eta bigarrena, mundu osoan milioika ale saldu dituen Alemaniako liburu sorta ezagun bateko lehen izenburua.

Maiatzak 4: *El polizón del Ulises*, Ana María Matute

Ekainak 1: *El pequeño vampiro*, Angela Sommer Bodenburg

LITERATUR SOLASALDIAK

Los viernes... TBO

Ostiraletan, maiatzaren 7tik ekainaren 18ra, 18:00. 1. gela

> Haurren komiki kluba, 9 urtetik aurrera. Koordinatzailea: Sara Machuca.

Gogoko al dituzu Asterix eta Tintin? Gustatuko al litzaizuke komikietako beste abenturazale handi batzuk ezagutzea? Hala bada, hementxe duzu zure espazioa. Bineta arteko txoko bat, gure pertsonaia gogokoenei buruz hitz egin ahal izateko, iradokizunak partekatzeko eta izenburu berriak ezagutzeko.

Malacatú #EnCasa*

> Haur txikienentzako (2017an jaioak) eta horien familientzako irakurketa kluba. Koordinatzailea: Iñaki Carretero.

Liburutegiak sustatutako programa bat da, helburutzat duena txikienengan irakurzaletasuna piztea; istorioak, esperientziak, orrialdeak eta irriak partekatzeko talde bat; formula eta errima artean liburuak ezagutzeko klub bat: “Fi, fa, fu, malakatu!”.

*Osasun egoera berezia tarteko, programa hau formatu birtualea

VECINOS DE LETRA - LETRAKIDE

Literatur solasaldien programa. Topaketak liburutegian, apalen ondoan, gure inguruko idazleekin, iritziak eta proiektuak partekatzeko.

TOPAKETA

Bizia min

Maiatzak 20, osteguna, 19:30. Liburutegia
Jon Ander Urkiaga Nafarroako Kutxa Fundazioaren Gazteen Poesiako I. Sarien irabazlearen (euskara) parte hartzearekin, Ángel Erro poetak aurkeztua. Helduentzat. Jarduera euskaraz eginen da.

> *Nor zara lo zaudenean?*
Zureak al dira erdizka irekitako begikoak?
Ezagutzen al nauzu?
Nork irensten zaitu?
Esango al dizkidazu entzutea desio ditudan hitzok?

Poema hau Nafarroako Kutxa Fundazioak Gazteen Poesia Sarien lehen edizioan euskarazko modalitatean saritu zuen *Bizia min* lanaren parte da. Epaimahaiak nabarmendu zituen Urkiagak tradizio poetiko desberdinak bateratzeko duen trebetasuna eta aitaren galeraz hitz egitean sentimenduak fintasunez adierazteko gaitasuna.

Egileak bere bertso sorta bat aurkeztuko du eta bertaratuekin hitz eginen du, lan honen sorkuntzari buruz.

Jon Ander Urkiagak (Zornotza, 1987) 22 urte zituela eman zituen lehen pausoak literaturan, Durangoko Udalak antolatutako Julene Azpeitia literatur lehiaketan poesiako lehen saria lortu zuenean. 2009an, kazetaritza ikasketak amaitu ondoren, Gasteizera joan zen Euskal Filologia ikastera. 2014an bere herrira itzuli zen eta, bertan, eskualdeko Anboto astekarian zuzentzaile lanetan hasi zen. Gaur egun, Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da. *Bizia min* (Luces de Galibo) ez ezik, *Atea itxi aurretik* (Erroteta, 2011) poema liburua ere idatzi du.

VECINOS DE LETRA - LETRAKIDE

TOPAKETA

Humor y entretenimiento, dos palabras peligrosas en ciencia ficción y fantasía

Ekainak 10, osteguna, 19:30. Liburutegia
Regina Salcedo idazlearekin.
Gazte eta helduentzat.

> Gure herrian, helduei zuzendutako eleberri bati buruz esan daitekeen gauzarik okerrenetako bat da entretenigarria dela, besterik gabe. Entretenigarria edo dibertigarria.

Horri gehitzen badiogu zientzia fikziozko edo fantasiazko nobela bat dela, Espainian oraindik maila txikikotzat jotzen diren generoak, etiketa hori ezin da kaltegarriagoa izan.

Zergatik erabiltzen dira termino horiek modu peioratiboan? Zergatik jarri behar dira beti umorea eta entretenimendua helburu handiago baten zerbitzura, justifikatuta egoteko? Beste literatur tradizio batzuetan, adibidez anglofonoan, ez da gauza bera gertatzen, eta, hitzaldi honetan, Regina Salcedo fantasiazko eta zientzia fikziozko idazleak azalduko digu zergatik den horrela.

Regina Salcedo Irurzun (Iruñea, 1972) idazlea bideojokoen gidoilaria, sormenezko idazketa tailerretako irakaslea eta hainbat irakurketa kluben koordinatzailea da.

Poema liburu hauek idatzi ditu: *Icebergs*, (Baile del Sol, 2014), *Protagonistas*, (Kokapeli, 2015), *Mujer varada*, (Libros de la marisma, 2018) eta *Lo que dejamos fuera* (Huerga y Fierro, 2020).

Narratiban, berriz, lan hauek argitaratu ditu: *Los libros de Ollumarh* gazteentzako fantasia trilogia, (Cazador, 2018), *Coser una vorágine*, (Apache Libros, 2020), *Pequeño Diccionario Sentimental* (57 palabras para empezar a amar el euskera), (Pamiela, 2020), *El Secreto de Thot* (autoedizioa, 2021) eta *La Baba Celestial* (Apache Libros, 2021).

LEER CON LOS CINCO SENTIDOS

Liburutegiko ohiko funtzionamendua eteten duten proposamenak, hitzak irudiekin, soinuekin, usainekin, testurekin, zaporeekin... konbinatzen dituzten irakurketak. Literaturan murgiltzeko gonbidapen bat, beste hizkuntza eta gozamen batzuk ezagutzeko. Bazatoz gurekin?

TOPAKETA-TAILERRA

Leer mapas y paisajes

Maiatzak 6, osteguna, 19:30. Liburutegia
Iban González Abadías eta Muga liburu dendarekin.
Gazte eta helduentzako jarduera.

> Bakartuta eta muga askorekin bizi garen garai honetan, gure zentzumenak dira errutinetatik deskonektatzeko eta lurrarekin berriz konektatzeko tresnarik onena: bidezidorretan barrena ibili eta gailurretara igotzea, inguruaren edertasuna mirestea, mila esentzia arnastea... Arretaz bagabiltza, sekretu natural harrigarriak aurkituko ditugu, oso gertu, ia hementxe bertan.

Liburutegiko mendi ibilien gidaliburuak baliabide ona dira ibilbide horietako batzuk ezagutzeko, baina, horiez gain, aditu baten aholkuak oso aukera ona dira txangoei etekina ateratzeko eta esperientziaz gozatzeko.

Topaketa honetan, mendira joateko oinarrizko jarraibide batzuk emanen dira: Nafarroan zeharreko ibilbide errazak, argitalpenak, tresna teknologikoak (GPS, Wikiloc eta ibilbideak deskargatzeko beste aplikazio batzuk), ezinbesteko ekipamendua, etab. Aldez aurreko ezagutzarik ez duen edozein zaleri lagundu diezaiokeen guztia, mendi ibiliak egin eta naturan gozatzeko.

Iban González Abadías geologoa eta erdi mendiko gidaria da. Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeko irakaslea da (NGME Nafarroako Goi Mendi Eskola). Gaur egun, elurrari eta elur jausiei buruzko iragarpenean eta prestakuntzan dihardu.

PAMPLONA NEGRA

Pamplona Negra Jaialdiarekin bat eginez (maiatzak 24-29), liburutegiak leiho bat irekiko du Nafarroa literarioko kalezulo ilunenera, izen boteretsuak, argudio klandestinoak eta orrialde sekretuak ezkutatzen dituen eremu beldurgarri horretara, argitara ateratzea eta eskuz esku ibiltzea merezi baitu.

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Foru krimena, Erretratu robota

Maiatzaren 3tik ekainaren 4ra. Liburutegia
Gazte eta helduentzat

> Krimenik odoltsuenak egin dituzte, arrastoak ezkutatu dituzte, polizia manipulatu dute... gure interesa bahitu eta loa lapurtu digute. Hurbileko jendea da, zure bizilagunak. Liburuak idazten dituzte. Ez diezazutela ihes egin.

PAMPLONA NEGRA

TOPAKETA

Pamplona Negra: Sangre y letras “bajo la piel”

Ekainak 3, osteguna, 19:30. Liburutegia
Susana Rodríguez Lezáun idazlearekin.
Helduentzat.

> Pamplona Negra Jaialdiaren zazpigarren edizioa amaitu ondoren, Estatuko hitzordu garrantzitsuenetako bat literatura eta zinema beltza maite dituztenentzat, Susana Rodríguez zuzendariak bere lanari buruzko literatur topaketa bat eginen du, generoaren erakusgarri.

Horrez gain, Nafarroako nobela beltzaren egileen egoera aztertuko da solasaldian, eta jaialdi arrakastatsu honen balantzea eginen da.

Jarduera hau Nafarroako idazleekin egindako topaketen ziklo baten parte da, eta Jaialdiaren zuzendaritzak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearekin elkarlanean antolatu du.

Susana Rodríguez Lezáun (Iruñea, 1967) Informazio Zientzietan lizentziaduna da UPV/EHUn, eta kazetari gisa lan egin du hainbat komunikabidetan, hala nola *El Mundo*, *Heraldo de Soria* eta *Diario de Noticias de Navarra*. Krimenen generoko autore handietako batzuen jarraitzaile leiala da, eta 2015ean bere lehen eleberria argitaratu zuen, Sin retorno, serieko hiltzaile bati buruzko intriga zirraragarri bat Done Jakue bidean bertan. Ordutik, *Deudas del frío* (2017), *Te veré esta noche* (2018), *Una bala con mi nombre* (2020) edo *Bajo la piel* (2021) argitaratu ditu. 2018ko urtarrilaz geroztik, *Pamplona Negra* Jaialdiaren zuzendaria da.

DE VIVA VOZ

Il. Simona Ciraolo.

DE VIVA VOZ

Astelehenetan, maiatzaren 3tik ekainaren 14ra, 18:00. Haurren liburutegia
4 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera librea, edukiera bete arte.

> Irakurketa sustatzeko programa, helburutzat duena haurrek testu onenak ezagutzea heldu baten ahotsean; hurbileko topaketa bat, non hitzak bizirik dauden eta liburu batek sor dezakeen erakargarritasun guztia erakusten duten.

Boluntario talde batek txandaka irakurtzen ditu testuak, liburutegiko taldearen aholkuei jarraituz: ipuinek eta poemek soinua jarriko diete liburutegiko astelehenei.

LIBURUTEGIA

LIBURUTEGIA ADINEKOEKIN

Donibane auzoko Adinekoen Aldeko Itunaren baitan, CIVICAN Liburutegiak, Yamaguchiko Liburutegi Publikoarekin batera, zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, DYAk eta Cáritas Donibane elkarteak aukeratu eta prestatutako boluntarioen laguntzaz.

ZERBITZU BEREZIA

Etxez etxeko mailegua

> Aldez aurretik telefonoz eskatutakoaren arabera aukeratutako liburuak, aldizkariak edo ikus-entzunezkoak bidaltzen dira.

ZERBITZU BEREZIA

Irakurketak telefonoz

> Astean behin, boluntarioek telefonoz hots egiten diete izena emana dutenei, eta aldez aurretik adostutako testu mota bat irakurtzen diete (kontakizuna, poema, eleberri baten kapitulu bat, prentsa...).

Bi zerbitzuak mugikortasun arazoengatik edo konfinamenduagatik liburutegira joan ezin diren pertsona guztiei ere ematen zaizkie.

LIBURUTEGIA ADINEKOEKIN

PRESTAKUNTZA JARDUERA

Gainditu etena

Ostirala, 12:00-14:00.

> 65 urtetik gorako pertsonentzat. Koordinatzailea: Diana K. Pindado.

Astean behingo espazio irekia (ez da aurrez izena eman behar), telefono mugikorrari, tabletari edo ordenagailu eramangarriari buruzko zalantzak argitzeko eta oinarrizko erabilera ikasteko. Oinarrizko mailan gailu horiek autonomiaz erabili ahal izatea da helburua.

LIBURUTEGIA

CONOCE TU BIBLIOTECA

Liburutegiak eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutzeko eta bertako baliabideak erabiltzen ikasteko programa.

Partaidetza irekia, aldez aurretik izena emanda liburutegian edo web-gunearen bitartez: www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN

PRESTAKUNTZA JARDUERA

Bisita gidatuak liburutegira

Astelehenetan, maiatzaren 3tik ekainaren 14ra, 17:00. Liburutegia

> Gazte eta helduentzat. Koordinatzailea: Lorena Gil.

Liburutegiko ataletan barrenako ibilbidea, funtsa antolatzeko sistema, katalogoak kontsultatzeko modua eta zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko. Idatzizko informazio osagarria emanen da.

PRESTAKUNTZA JARDUERA

Liburutegia sakelan

Astelehenetan 12:00etan eta ostegunetan 17:00etan. Maiatzaren 3tik ekainaren 24ra. Liburutegia

> Gazte eta helduentzat. Koordinatzailea: Villar Arellano

Prestakuntza saio pertsonalizatuak, liburutegiko baliabide digitalak erabiltzen ikasteko. Bakarka edo binaka. Norbere telefono, tableta edo ordenagailu eramangarriarekin:

1. KATALOGOA: sartu “Nire liburutegia” atalean, eta bilatu liburuak, eskatu erosketak edo berritu maileguak.
2. LIBURUTEGI DIGITALA: kudeatu mailegua plataforma digitaletan (eBiblio, eFilm eta eMagazine).

LIBURUTEGIA-ESKOLA PROGRAMA

Lankidetzarako bide bat, liburutegiaren baliabideak ezagutzera emateko eta haur zein gazteengan irakurtzeko ohitura sustatzeko.

Eskolen bisitak: liburutegia, gertutik

> Hezkuntza ziklo guztietako *ikasle talde txikientzat*. Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Lorena Gil.

Ezinbestekoa da aurretiko bilera hitzartzea, formatua eta egun libreak aztertzeko.

Jarduera honen helburua da liburutegiko baliabideak ezagutzera ematea eta bertako zerbitzuek nola funtzionatzen duten azaltzea. Jardueraren dinamika taldearen ezaugarrietara moldatzen da.

Jarduera hau antolatzeko kontuan hartzen dira indarrean dauden edukiera arauak; parte hartzeko eskaerei hurrenkera kronologikoaren eta egutegiko egun libreen arabera erantzunen zaie.

Mailegu kolektiboa: sortak eta maleta bidaiariak

> Liburutegiak zenbait liburu sorta ditu eskola taldeei baldintza berezietan mailegatzeko.

Bi sorta mota daude:

- Izenburu baten 15-20 aleko sortak (haur, gazte eta

- Hainbat adinetarako gaikako sortak (genero edo gai jakin bati buruzko 20-30 laneko bildumak).

Irakasleentzako bisita gidatuak

Martxoak 18, asteartea, 18:00. Liburutegia

> Hezkuntza ziklo guztietako irakasleentzat. Koordinatzailea: Villar Arellano.

Talde txikitan (4 edo 5 irakasle) eginen den topaketa, liburutegian erabilgarri dauden baliabideak, horiek erabiltzeko modua eta eskaintzen dituzten aukera didaktikoak ezagutzeko.

Eskola Liburutegiari Laguntzeko Zerbitzua

> Behar espezifikoen arabera irakurketa interesgarriak aukeratzeko orientabidea.

Irakurzaletasuna sustatzeko edo liburuen mundura hurbiltzeko jarduerak martxan jartzeko aholkularitza.

Informazio gehiago gure webgunean: www.bibliotecaspublicas.es/civica

#LabCIVICAN
MiradorDeCuentos
Solidaridad Pensamiento
Familias MiPrimeraVez
LaHoraDelCuento
Actualidad Mediación
NarraciónOral Ítaca
LaIncubadora EnClaveDe#F
Igualdad Experiencias
Navarra Talleres
LiburuzLiburu DeVivaVoz
Perspectivas Literatura
Creación PrimeraInfancia
Biblioteca ArtLAB
PersonasMayores Cultura
PaisajeSonoro Educación